**MATÍAS MOSTEIRIN** SAIL OFIZIALA

# “Zinema ona arriskuko erabakietatik sortzen da”



PABLO GÓMEZ

SERGIO BASURKO

Glenn Closeren ‘ihesaldi arrazoitua’ eta gero, Epaimahai Ofizialaren ustekabeko presidente izateko ardura egokitu zaio Matías Mosteirin ekoizle argentinarrari; bai ondo egokitu ere. “Oso gustura nago Epaimahaiko gainerako kideekin. Gainera, lagun asko eta askorekin elkartzen ari naiz. Denbora luzea daramat lanbidean eta lankide espainiarrekin lankidetzan, beraz, etxean bezala sentitzen naiz; eta oso maitatua ere bai. Eta horrek esker on sakona eta poz handia ematen dit”.

“Epaimahai Ofizialaren kide arrunt moduan zatozela jarrera pertsonalagoa izan dezakezu, oldarkorrago jokatu zure iritzien defentsan. Aitzitik, presidente izanik erantzukizuna oso bestelakoa da: eztabaidak kudeatu behar dira eta besteen iritziekin zuzen jokatu, ez baitago epaitzeko irizpide bakarra, eta azkenik, ‘suterik’ sortuko balitz berau itzaltzeko ahalmena izatea”, azaldu du Mosteirinek.

Epaimahaikoek zer motatako filmen peskizan dabiltzan ere galdetu diogu: “Ez dugu film komertzial bat bilatzen. Kalitate tekniko eta artistikoa duen pelikula baten bila gabiltza. Eta, aldi berean, balio humanoak edo solidarioak barnean dituena. Proposamen ausart eta probokatzaile edo adeitsu eta konbentzionalak direnen erdibidean badira beste ñabardura batzuk eskaintzen dituztenak filmak, alegia, arriskuko erabakietatik sortzen direnak. Horiek izango dute aurten aukerarik gehien”, erantzun du.

Aspaldiko partez, alaitasunezko giroa sumatzen ari da Mosterein Zinemaldiaren ingurumarietan: “Askotan izan naiz Zinemaldian eta aspaldi ez bezalako bizitasuna sentitu daiteke inguruko kale nahiz aretoetan. Ikusleak dira berriro jaialdiaren protagonista, beraiek eusten, babesten eta goresten dute Zinemaldia. Hizki guztiekin esan dezaket ikusleak direla jaialdiaren faktore bereizgarria. Cannesen edo Sundancen ikusleak zinema-industriako kideak dira, Donostian, aldiz, publikoa da aretoen jaun eta jabe; hemen zinemaldia jendearentzat egiten da”.

> “Duda izpirik gabe, ikusleak dira jaialdiaren protagonista, beraiek eusten, babesten eta goresten dute Zinemaldia”

Gaur egun zuzentzen duen KyS ekoiztetxearen eskutik *Relatos salvajes*, *El clan* edo *La odisea de los giles* film gogoangarriak ahalbidetu dituen ekoizleak zinemarekiko zaletasuna nola hozitu zitzaion gogoratu du. “Lehen oroitzapena, txikitan, Avellanedako ‘Roma’ zinemara jarraiko saioak ikustera joaten nintzenekoa da. Gero, nerabezaroan, diktadura osteko zinemarekin lengoaia zinematografikoaz eta nire herrialdearen historiaz jabetu nintzen. Beranduago, Carlos Sorín, Adolfo Aristaraín, Luis Puenzo edo Pino Solanaren lanak deskubritu nituen. Azken horren *El exilio de Gardel* izan zen, nik uste, zinemagintzarantz bideratu ninduena”.

Zinema-mundua guztiz abiadura azkarrean aldatzeak kezka handia sortzen dio Mosteirini: “Desberdintasunak nagusi diren eszenategi honetan, askotariko filmak ekoizten eta horiek aretoetan erakusten jarraitzeko zailtasunak izango ditugu. Herrialde txiroetan zinemak itxi egingo dira eta ikusleek plataformetara jotzea beste erremediorik ez dute izango. Herrialde txiroen eta baliabideak dituztenen artean, txuritik beltzera dagoen aldea nabarmenduko da”.

Sail Ofizialetik kanpo, Santiago Mitreren *Argentina, 1985* filma ikustea gomendatzen du ofizialeko presidenteak, eta berak galdu nahi ez lukeen bat aipatzekotan Isabel Coixeten *El sostre groc* aukeratu du.

---

**TEA LINDEBURG** SECCIÓN OFICIAL

# “Valoro el riesgo cada día”

MARC BARCELÓ

Tea Lindeberg (Copenaghe, 1977) ganó la Concha de Plata a mejor dirección el año pasado con *Du som er i Hilmen / As In Heaven*. Este año cierra el círculo que empezó con el estreno y éxito de su ópera prima como miembro del Jurado Oficial.

**¿Cómo va la experiencia de estar en el otro lado?**
Es muy interesante… y ¡difícil! Ya había sido jurado en algún festival, pero aquí es magnífico por la calidad de las películas… tan diferentes e interesantes. Es un gran trabajo ponerlas en relación.

**¿Y cuál es su día a día aquí?**
Vemos tres películas cada día: a las 12.00, que es un pase privado para nosotros, y a las 16.00 y a las 19.00, en el Kursaal. Es fantástico verlas con el público y sentir la vibración de la sala, pero realmente no hay una forma de verlas mejor que la otra. Una gran película es siempre una gran película.

**Vaya ritmo… Poco tiempo para reflexionar, imagino.**
Para mí no es difícil salir con una opinión. Es evidente que hay pensamientos que aparecen después de un rato de ver la película, pero realmente estoy segura de lo que siento sobre ella enseguida. Tomo mis notas privadas y al salir no podemos hablar mucho entre los miembros, porque estamos entre el público, pero algo nos susurramos…(risas). Es un gran jurado, nos lo pasamos muy bien.



PABLO GÓMEZ

**El viernes tendrán cinco horas para deliberar.**
Todos somos muy distintos, pero creo que coincidimos en que la calidad es la calidad. Yo creo que nos pondremos de acuerdo.

**¿Qué es para usted, la calidad?**
Que haya una voz personal, que el cineasta esté dispuesto a tirarse por el acantilado. A veces el experimento no funciona pero… Valoro el riesgo cada día.

**¿Ha encontrado temas o motivos que atraviesen las películas?**
Pues sí: la muerte, pianos y encuadres de puertas.

**Entre las seleccionadas hay algunas que llegan con fuertes polémicas…**
Es difícil… y siento que haya pasado. Lo único que puedo decir es que nosotros, el Jurado, somos conscientes de la problemática y nos la tomamos en serio.

**Desde que ganó la Concha el año pasado su película ha estado en muchos festivales, ahora es jurado... ¿Cómo un director encuentra tiempo para trabajar en su siguiente proyecto?**
En febrero tomé la decisión de dejar de viajar a festivales, porque te puedes perder. De repente te puedes dar cuenta de que han pasado dos años mientras tú has estado viajando y celebrando tu película. Para mí la película está hecha y ya no es mía, sino del público. Ahora estoy trabajando en mi próximo largometraje del que ya tengo una primera versión del guion.

**En Dinamarca tienen una potente y loable tradición cinematográfica.**
El cine de tu país se te queda en la espina dorsal. No es algo sobre lo que reflexione conscientemente, pero ese fue mi cine de la infancia, el cine nacional danés. Carl Theodor Dreyer y Lars von Trier son los cineastas que más adoro y con los que más me identifico.